



Mugaz gaindiko I Mintegia, Ongizate Politikak eta Gizarte Zerbitzuak
I Seminario Transfronterizo, Políticas de Bienestar y Servicios Sociales
I Séminaire Transfrontalier, Politiques sociales et services sociaux

**MINTEGIAREN KONTAKIZUNA
EUSKARAZKO BERTSIOA**



AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
IREKIERA INSTITUZIONALA	4
SAIO AKADEMIKOA	5
Ipar Euskal Herriko babes sozialeko sistemaren ezaugarriak, erronkak, indargune eta ahuleziak.....	6
EAEko babes sozialeko sistemaren ezaugarriak, erronkak, indargune eta ahuleziak	9
Nafarroako babes sozialeko sistemaren ezaugarriak, erronkak, indargune eta ahuleziak.....	11
MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZARI LOTUTAKO ESPERIENTZIEI BURUZKO SAIOA.....	14
MUGIGAIN proiektuaren esperientzia	14
LIMITIS FORUM proiektuaren baitan burututako gizarte ikerketa	14
Navarra Nuevo Futuro elkartearen esperientzia mugaz gaindiko proiektuetan	15
Agintzari kooperatibaren esperientzia mugaz gaindiko proiektuetan.....	17
Etcharry Formation Développement-en esperientzia mugaz gaindiko proiektuetan	17
Esperientzien saioaren sintesia	18
SAIO PARTEHARTZAILEA.....	20
POLITIKA PUBLIKOEN GAINEKO SAIOA	23
Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatu Maite Peñaren hitzaldia	23
Euskal Hirigune Elkargoko Gizarte Ekintzako lehendakariorde Beñat Cachenauten hitzaldia 26	
INKESTA KUANTITATIBOAREN EMAITZA	30



SARRERA

Testu honek 2019ko azaroaren 22an FICOBAn egin zen “Ongizate-politikak eta gizarte-zerbitzuak” Mugaz gaindiko I. Mintegian landutako edukia biltzen eta laburbiltzen du. Mintegiak akademiaren, administrazio publikoaren eta gizarte-eragileen arteko topagune izatea zuen helburu, mugaz gaindiko izaerarekin.

EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriaren lurralde eremuan hiru Ongizate Eredu desberdin aurkitzen ditugu, kontzeptu, politika eta eskumen maila desberdinekin. Beharrak eta arrisku sozialak antzekoak badira ere, behar horiei ematen zaien erantzuna oso desberdina da aipatutako eremu geografiko horietako bakoitzean. Zentzu honetan, mugaz gaindiko eremua babes sozialeko politiken inguruan azterketa, ikasketa eta berrikuntzarako laborategi arras interesgarria bilakatzen da.

Eusko Ikaskuntzaren barruan, “Ongizate-ereduak Euskal Herrian” izeneko lantaldea sortu da, eta talde horrek hartu du bere gain Mintegiaren antolaketa zientifiko eta tekniko eta txosten hau idazteko zeregina. Kideak honako hauek dira:

- Arrate Arin, Eusko Ikaskuntza
- Beronika Larre, Eusko Ikaskuntza
- Lucía Martínez Virto, Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- Angel Toña, Deustuko Unibertsitatea
- Joseba Zalakain, SIIS Ikerketa Zentrua

Bestalde, Mintegian aurkeztutako “Ongizate politikak eta beharrak: EAE, Nafarroa eta Euskal Hirigune Elkargoaren arteko alderaketa kuantitatiboa” txostena Gaindegiak eta SIIS Dokumentazio Zentroak landu dute¹.

¹ Txosten hori honako esteka honetan deskarga daiteke: http://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/galeria/files/Ongizate%20adierazleak_indicadores%20bienestar_EUS_GAZ.pdf

IREKIERA INSTITUZIONALA



Argazkia (Ezkerretik eskuinera) = Angel Toña (Eusko Ikaskuntza), Lide Amilibia (Eusko Jaurlaritz), Iñaki Dorronsoro (Eusko Ikaskuntza), Annick Trounday-Idiart (Pirineo Atlantikoetako Departamentua) eta Andrés Carbonero (Nafarroako Gobernua)

SAIO AKADEMIKOA

Jardunaldiko lehen saioan, aztertutako lurralde bakoitzean (hots, Nafarroako Foru Erkidegoan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Ipar Euskal Herriko Udalerrien Elkargoan) dauden gizarte-babeseko ereduak aztertu ziren. Eredu bakoitzaren oinarritzko antolamendu- eta eskumen-alderdiak eta eremu bakoitzean neurririk handienez eta txikienez garatu diren zerbitzuak eta prestazioak adierazteaz gain, hiru ereduak ahuleziak, indarrak eta erronkak utzi zituzten agerian hizlariek.



Argazkia (Ezkerretik eskuinera) = Lucía Martínez Virto (UPNA), Jean Jacques Manterola (Euskal Hirigune Elkargoa), Joseba Zalakain (SIIS Ikerketa Zentrua) y Angel Toña (Eusko Ikaskuntza)



Ipar Euskal Herriko babes sozialeko sistemaren ezaugarriak, erronkak, indargune eta ahuleziak

Lehen hitzaldia Ipar Euskal Herria osatzen duten, Euskal Hirigune Elkargoan bilduta dauden eta ikuspuntu politiko-administratibotik Pirinio Atlantikoetako Departamenduan kokatuta dauden udalerrien egoerari buruzkoa izan zen.

Administrazio- eta eskumen-egiturari dagokionez, gizarte-babesaren arloko eskumenak Estatutik eta tokiko administrazioetik Departamendura eraman dira, eta Departamendua da gizarte-ekintzaren arduraduna edo burua (413 milioi euroko gastua 2019an). Gizarte-zerbitzuen errealitatean, nolana ere, Estatua, Departamendua eta tokiko erakundeak oso txertatuta daude gizarte-zerbitzuen prestazioan.

Gizarte-inklusioko politikei dagokienez, Estatua enplegu-arloko politika pasiboez eta aktiboez arduratzen da (*Pole Emploi* izeneko bidez), eta Departamendua, berriz, Elkartasun Aktiboko Errentaren (RSA) kudeaketaz. Estatuak eta Departamenduak, gainera, gizarteratze- eta laneratze-egiturak finantzatzen dituzte (ACI, EI, AI, ETTI, GEIQ). Azkenik, eskualde-administrazioa, Prestakuntzarako Eskualde Planaren (PRF) bidez, prestakuntza-zerbitzuez arduratzen da (batez ere langile kualifikatuen premiarik handienak dituzten lanbideei lotutako zerbitzuez). Ikuspuntu kuantitatibotik, adierazi beharra dago gizarte-inklusioren eremuan 88 milioi euro bideratu direla diru-sarrerak bermatzeko prestazioetara, eta onuradunak 15.000 inguru direla.

Mendekotasunen arretarako politiken eskumena Departamenduko administrazioarena da ia erabat. Ildo horretan, Departamenduak Autonomiarako Prestazio Pertsonalizatua (APA) —neurri batean administrazio zentralak finantzatzen duena, Elkartasun Aktiboen Kutxa Nazionalaren bidez— kudeatzen du, eta etxeko arreta-zerbitzuak, toki-administrazioen finantzaketa ere jaso dezaketenak, finantzatzen ditu. Toki-erakundeak beste zerbitzu batzuez ere arduratzen dira (etxez etxeko janariez, adibidez). Egoitza-zentroak, bestalde, hiru modutara finantzatzen dira: osasun-administrazioak medikuntza-gastuak finantzatzen ditu, Departamenduak mendekotasunaren arretari lotutako gastuak, eta erabiltzaileek, berriz, ostatu- eta mantenu-gastuak. Erabiltzaileek bitartekorik izan ezean, Departamenduak diru-sarrerak bermatzeko ematen dituen prestazioetara jo dezakete. Ikuspuntu kuantitatibotik, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak 72 milioi euro bideratu zituen APARA 2019. urtean, eta 15.782 pertsona izan ziren onuradunak.

Prekaritate sozioekonomikoari lotutako zerbitzuak (ostatu- eta gizarteratze-zentroak, larrialdiko harrera, asilo-eskatzaileentzako harrera-zentroa eta abar) Estatuak finantzatzen ditu, baina toki-erakundeek ere larrialdiko harrera-zentroak, elikagaiak banatzeko zerbitzuak, supermerkatu sozialak eta abar finantzatzen dituzte. Udalek ere prekaritatearen eremuan esku hartzen dute,



udalerrri gehienetan zabaldua dauden udal-eskumeneko Gizarte Ekintzako Udal Zentroen lanaren bidez. Azkenik, Gizarte Segurantzak, gaixotasun-asegurua bidez, osasun-arreta bermatzen die EBko herritar guztiei, eta Departamenduak osasun-zerbitzu jakin batzuk eskaintzen dizkie egoitza irregularra duten pertsonari.

Familiei laguntzeko politikak Familia Prestazioen Kutxak (CAF) kudeatzen ditu, hots, Gizarte Segurantzaren familia-adarrak. Kutxa horrek, seme-alabak dituzten familientzako prestazio ekonomiko unibertsalez gain, toki-mailan zabaldutako beste zerbitzu batzuk finantzatzen eta garatzen ditu, hala nola haurrentzako arreta-zentroak, aisia- eta astialdi-zentroak eta abar. Zerbitzu horiek Departamenduaren finantzaketa ere jasotzen dute, eta toki-erakundeek kudeatzen dituzte. Hautzaroren arloan, Departamenduak funtsezko lau funtzio betetzen ditu: prebentzioa, ama-haurren babesa (Estatuarekin lankidetzan), haurren babesa eta adopzioa. Ikuspuntu kuantitatibotik, azpimarratu beharra dago, adibide gisa, Ipar Euskal Herrian haurren arretarako 3.200 plaza baino gehiago daudela (haurrentzako arreta-zentroak eta etxeko zerbitzuak ematen dituzten amatasun-laguntzaileak batuta).

Azkenik, desgaitasunaren eremuan, eta 2005eko Desgaitasunaren Legea betez, Desgaitasunaren Arretarako Departamendu Zentro bat (MDAH) dago. Zentroa administrazio zentralaren zein Departamenduko administrazioaren eskumena da, eta desgaitasuna baloratzeaz, arreta-plan indibidualak egiteaz eta hainbat zerbitzu kudeatzeaz arduratzen da. Prestazio nagusia Desgaitasuna duten Helduentzako Prestazioa (AAH) da. Familia Prestazioen Kutxak kudeatzen du, eta Departamenduaren eskumeneko Desgaitasuna Konpentsatzeko Prestazioarekin (ACH) osa daiteke. Desgaitasunaren eremuan, toki-administrazioaren zereginak irisgarritasunaren eta hiri-garraio egokituaren eremua du ardatz.

2019. urtean, Pirinio Atlantikoetako Departamenduak 24,2 milioi euro bideratu zituen 2.336 onuradunentzat. Beraz, onuradun bakoitzeko 10.359 euro bideratu dira batez beste.

Sistemaren indarguneen artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- Gizarteratzearen eremuan, tokiko taldeek laneratzeko aukera gutxien dituzten pertsonen inklusioaren alde egindako ahalegina.
- Mendekotasunaren eremuan, hiri-inguruetakoz zein landa-inguruetakoz adinekoek beren bizilekuan jarraitzea bideratutako askotariko zerbitzuak eta ekintzak.
- Prekarietaterik handieneko egoerei erantzuten dion toki-sarearen aberastasuna eta elkarre-sarean oinarritutako ekintza publikoa (iragaitzazko etorkinen arretaren kasuan, adibidez).
- Hiri-inguruetakoz zein landa-inguruetakoz haurren arretarako zerbitzuen aniztasuna eta estaldura, haurren sozializazioa eta amen laneratzea errazten duena.



- Desgaitasunari dagokionez, desgaitasunak eskola-eremuan, lan-eremuan eta kultura-eremuan duen eragina kontuan hartzen duen Estatuko arau-esparrua.

Azkenik, sistemaren ahulezien eta erronken artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- Gizarteratzearen arloan, gizarteratzeko eta laneratzeko baliabideen kopuru txikia eta aldi baterako kontratazioen pisu handia, produkzio-sektoreen urtarokotasunari, aukeratu gabeko partzialtasunari, kontratu ezegonkorrei eta lan-pobrezia areagotzen duten beste fenomeno batzuei lotuak.
- Herritarren zahartzea, etxeko zerbitzuak emateko zailtasuna, zuzeneko arretako zerbitzuen gero eta kostu handiagoa eta zaintzari lotutako lanbideen erakargarritasun urria.
- Larrialdiko harrera-zentroen zuzkidura urria (zuzkiduraren zein plazen lurralde-banaketa-aren ikuspuntutik), etxebizitzaren kostuaren igoera eta larrialdiko ostatu-zerbitzuak, praktikan, iraupen luzeko egoitza-zerbitzu bihurtzea.
- Gizarte-bazterketako egoeran dauden eta osasun mentaleko arazoak dituzten herritarrei laguntzeko zailtasuna.
- Etorrinen eta/edo iragaitzako pertsonen etorreraren aurrean erantzun publikoa osatzeko zailtasunak.
- Bidaidetik gabeko adingabeen kopuruaren igoera handia.
- Desgaitasuna duten ikasleen eskola-integraziorako zailtasunak.
- Desgaitasuna duten pertsonen etxean laguntzeko zerbitzuak neurri handiagoan garatzeko premia.
- Desgaitasuna duten pertsonen zahartzeari lotutako arazoak.
- Zerbitzu eta ekipamendu jakin batzuetarako irisgarritasunaren hobekuntzan aurrera egiteko premia.



EAEko babes sozialeko sistemaren ezaugarriak, erronkak, indargune eta ahuleziak

Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako ereduari dagokionez, lurraldearen oinarritzko ezaugarri soziodemografikoak azpimarratu ziren lehenik eta behin: Erkidegoaren tamaina txikia, langabezia-tasa eta pobrezia-tasa txiki samarrak, per capita errenta handia (36.300 euro), EBko batezbestekoa baino gastu sozial txikiagoa, immigrazio-maila txikiak eta gero eta egitura demografiko zaharragoa (herritarren % 22k 65 urte baino gehiago ditu, % 15ek 18 urte baino gutxiago, eta % 9,3 atzerrian jaioa da).

Gizarte-babeseko sistemaren administrazio- eta eskumen-antolamenduaren ezaugarri bereizgarriak deszentralizazioa eta tokiko eragileen (hots, Autonomia Erkidegokoen, foru-eragileen eta udal-eragileen) autonomia dira. Administrazio zentralak edo Estatukoak betetzen duen zeregina ez da oso garrantzitsua, Gizarte Segurantzaren (pentsioen), langabeziaren eta atzeritarren arloan izan ezik. Halaber, oinarritzko antolamenduko eskumenak ditu mendekotasunaren eta enplegu-politiken arloetan. Eskualdeko edo Autonomia Erkidegoko administrazioak, berriz, eskumen garrantzitsuak ditu etxebizitzaren, enpleguaren, familiaren, diru-sarreraren bermearen, osasunaren eta hezkuntzaren arloko kudeaketari eta finantzaketari lotutako eremu eta eskumen garrantzitsu guztien erregulazioan eta plangintzan. Foru- edo lurralde-administrazioak bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuen finantzaketaren eta kudeaketaren arloan ditu eskumenak, eta udalek, berriz, tamaina edozein izanik ere, lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuen arloan. Halaber, beste arlo batzuei lotutako zerbitzuak ematen dituzte diskrezionalki (hala nola etxebizitzari eta enpleguari lotutakoak). Adierazi beharra dago, gainera, gizarte-politikak zerga orokorren, kotizazioen eta koordainketaren bidez finantzatzen direla, ekarpen finalitarik gabe eta presio fiskal ertain/txikiarekin (EBrekin alderatuta).

Gizarte-zerbitzurik garatuenei dagokienez, honako hauek dira aipatzekoak:

- Diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak: DSBEa (pentsiodunak eta langile pobreak baliabide berean sartuta) eta GLLa, estaldura eta zenbateko handi samarrekin (beste batzuekin alderatuta).
- Enplegu-zentro bereziak desgaitasuna duten pertsonentzat.
- Egoitza-zerbitzuak eta eguneko arretako zerbitzuak adinekoentzat, desgaitasunen bat dutenentzat eta bazterketa-egoeran daudenentzat.
- Familia-zaintzaileentzako prestazio ekonomikoa, mendekotasunaren arretarako Estatuko sistemaren esparruan.
- Babesik gabe dauden adingabeentzako egoitza- eta familia-harrera.



- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak; udalerrri guztietan zabaldua daude, baina oso ratio profesional desberdinekin eta esku hartzeko eta antolatzeko eredu komunik gabe.

Neurririk txikienean garatu diren gizarte-zerbitzuei dagokienez, honako hauek aipa daitezke:

- Adinekoen etxeko arretarako zerbitzu publikoak.
- Gizarte-laguntzako eta/edo gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko programa ambulatorioak, lehen eta bigarren mailako arretaren esparruan.
- Laguntza pertsonaleko prestazio ekonomikoak (Gipuzkoan izan ezik, adinekoentzat) eta bizitza independenterako programak.
- Laneratzeko enpresak gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat.
- Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak eta aitatasun edo amatasunagatiko prestazio ekonomikoak.
- Alokairu sozialeko etxebizitzak eta etxebizitza komunitarioak, tutoretzapekoak eta lagunduak adinekoentzat, desgaitasunen bat dutenentzat eta bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan daudenentzat.

Ikuspuntu kuantitatiboago batetik, honako datu hauek azpimarra daitezke: duela gutxi egindako FOESSA inkestaren arabera, euskal herritarren % 56 erabateko integrazioko gizarte-esparruan dago, eta % 15, berriz, gizarte-bazterketa ertain edo larriko esparruan. Ikuspuntu kuantitatibotik, halaber, gizarte-zerbitzuei lotutako gastu publikoaren igoera handia aipa daiteke (652 milioi euro 2006. urtean, eta 1.230 milioi euro 2016an; igoera bereziki handia izan da prestazio ekonomikoen kasuan). Era berean, gizarte-zerbitzuetako profesionalen kopurua (herritarrekiko proportzioan) Espainiako estatuko gainerakoan baino handixeagoa da Euskadin, baina Europa erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetan baino askoz txikiagoa.

Sistemaren indargune nagusiak, bestalde, honako hauek dira:

- Gastu publiko handia gizarte-politika gehienetan, haurtzaroaren eta familiaren arloan izan ezik.
- Arau-esparru aurreratua eta diru-sarrerak bermatzeko, gizarte-zerbitzuetarako eta etxebizitzarako eskubide subjektiboaren aitorpena.
- Herritarren babes handia (baina zenbaitetan anibalentea) gizarte-politikak garatzeko.
- Kaudimen tekniko eta berritzeko ahalmena.
- Gizarte-sare aktiboa, mobilizatua eta konprometitua, eta esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eredu eraginkorra.
- Zerbitzu eta prestazio nagusien zentzuzko estaldura (diru-sarreraren bermea, adinekoentzako egoitzak, zaintzaileentzako prestazioak eta abar).



Azkenik, ahuleziei dagokienez, honako hauek dira azpimarragarrienak:

- Lurralde-desberdintasun handiak eta nolabaiteko diskrezionalitatea zerbitzuen garapenean.
- Zainketen krisiari erantzuteko, zahartzea bizilekuan eta komunitatean bermatzeko eta emakumeei lan-merkatuan txertatzen laguntzeko zailtasunak.
- Prebentzio-zerbitzuak eta kalteberatasunaren arretarako zerbitzuak garatzeko zailtasunak.
- Behar adinako estalduraren (eta behar besteko mailan), lan-baldintza egokien eta gastu publikoaren kontrolaren arteko oreka egokiari eusteko zailtasunak.
- Gizarte-politikak finantzatzeko presio fiskala handitzeko eta presio horri eusteko zailtasunak, eta koordainketaren nahi gabeko ondorioak.
- Kontribuzio-logiken garrantzi handiegia eta 'Mateo efektuaren' iraupena.
- Adinekoei zuzendutako zerbitzuen, programen eta prestazioen gero eta garrantzi handiagoa.
- Gizarte-politiken diseinua zalantzan jartzen duten diskurtso politikoen agerpena eta gizarte-aniztasuna gora egiten ari den egungo testuinguru honetan politika horiei eusteko zailtasunak.

Nafarroako babes sozialeko sistemaren ezaugarriak, erronkak, indargune eta ahuleziak

Nafarroako Foru Erkidegoan ezarritako ereduari dagokionez ere, lurraldearen oinarritzko ezaugarri soziodemografikoak azpimarratu ziren lehenik eta behin: per capita errenta handia (31.890 euro 2018an), gastu sozial txiki samarra (BPGaren % 21), % 14ko immigrazio-tasa eta langabezia-tasa txikia, Espainiako Estatu osoarekin alderatuta (% 8,1). Halaber, Erkidegoko biztanleria-dentsitate txikia azpimarratu beharra dago (62 biztanle km²-ko).

Eskumen-egiturari dagokionez (EAEko esparru deszentralizatu berean, Estatuaren eskumen berdinekin), Nafarroako Gobernuak honako arlo hauetako eskumenak ditu: inklusio-politikak, mendekotasunaren arreta, familiaren eremuko zerbitzuak, adingabeak eta babesgabetasuna, gizarteratze- eta laneratze-zerbitzuak eta aktibazioa, eta sistemaren neurketari, plangintzari eta ebaluazioari lotutako jarduerak. Udalei, bestalde, lehen arretako gizarte-zerbitzuak ematea dagokie. Zerbitzu horiek, nolana ere, Nafarroako Gobernuak arautzen eta, beste batzuekin batera, finantzatzen ditu. Horretarako, udalen gizarte-zerbitzuak lau programatan egituratuta daude: harrera eta orientazioa, haurtzaroa eta familia, autonomia eta mendekotasuna, eta gizarteratzea.



Sistemako prestaziorik garatuenen artean, honako hauek aipa daitezke:

- Errenta bermatua (duela gutxi sendotua) eta, neurri txikiagoan, gizarte-larrialdietarako laguntzak.
- Gizarteratzeko eta Laneratzeko (EISOL), Etxebizitzako (EISOVI) eta Haurtzaroko (EIA) talde espezializatuak.
- Mendekotasunaren arretarako zerbitzuak; prestazio ekonomikoak zein etxeko zerbitzuak, eguneko zerbitzuak eta egoitza-zerbitzuak sartzen dira (20.000 prestazio baino gehiago).
- Bizitegi- eta familia-harrera babesgabatasun-egoeran dauden adingabeentzat.
- Lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak (64.000 arreta-kasu baino gehiago urtean).

Neurririk txikienean garatutako zerbitzuen artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- Laneratzeko enpresak gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat.
- Enplegu- eta laneratzeko-zentro bereziak desgaitasuna duten pertsonentzat.
- Eguneko arreta-zentroak mendekotasuna duten pertsonentzat.
- Alokairu sozialeko etxebizitzak eta tutoretzapeko etxebizitzak adinekoentzat, desgaitasunen bat dutenentzat eta bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan daudenentzat.
- Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko prestazio ekonomikoak.
- Adingabeen, inklusioaren edo mendekotasunaren arloko prebentzio-neurriak.
- Ekintza komunitarioko programak.

Ikuspuntu kuantitatibotik, Nafarroako herritarren % 15,9 gizarte-bazterketako egoeran dago, eta % 54,7, berriz, erabat integratuta. Gastu sozialaren ikuspuntutik, gizarte-babesari lotutako gastua bikoiztu egin da 1996tik 2016ra bitarte (biztanleko 1.000 eurotik 2.039 eurora), eta tokiko erakundeek gastuak egonkor samar jarraitu du. Bestalde, EAEn bezala, gizarte-zerbitzuetako profesionalen kopurua (herritarrekiko proportzioan) Espainiako Estatuko gainerakoan baino handixeagoa da Nafarroan, baina Europa erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetan baino askoz txikiagoa.

Ereduaren indarguneei dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke:

- Legegintza-esparru sendoa eta aurreratua, eska daitekeen eskubide subjektiboaren aitoparari dagokionez.
- Gastu publiko handia gizarte-politika gehienetan, haurtzaroren eta familiaren arloan izan ezik.
- Profesional-sare zabala lehen mailako arretaren eremuan (150 gizarte-langile inguru, 60 familia-hezitzaile eta 200 familia-langile).



- Mendekotasunari edo zerbitzu publikoei lotutako gastuaren gizarte-legitimazioa, baina bazterketaren eta pobreziaren inguruko erronkekin.
- Nolabaiteko espezializazioa eta lurraldearekiko hurbiltasuna ezaugarri dituen gizarte-zerbitzuen eredua.
- Erantzukizun publiko progresiboa lurralde-kohesioan eta sisteman (gizarte-zerbitzuen zentroak, enpleguarekiko koordinazioa).
- Gizarte-zerbitzuen zorro aitzindaria eta berrikusia.
- Gizarte-sare aktiboa, mobilizatua eta konprometitua, eta esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eraginkorra.
- Zentzuzko estaldura prestazio eta arreta batzuetan, batez ere errenten bermearen eta mendekoentzako etxeko arretaren esparruan (450 mila ordu inguru, edo 60 mila pertsona urteko).
- Sistemarako ibilbide-orri bat egiteko ahalegin handia: prestakuntza espezializatua, lehen mailako arretaren berrikuspena, bitarteko arreta-mailak bere gain hartzea eta abar.

Azkenik, ahuleziei dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke:

- Sistemaren zatikatze bertikal eta horizontala: egitura komuna, baina arreta-ereduak, esku hartzeko ereduak eta antolamendu-ereduak falta dira.
- Lehen mailako arretaren egitura zatikatu samarra, lau programa bereizi edo estankorekin.
- Lurralde-desberdintasunak, alde handiak landa-ekintzen eta hiri-ekintzen artean, eta zerbitzu espezializatuen eta hirugarren sektorearen banaketa desberdina lurraldean.
- Gizarte-politiken sistema osoaren kohesio-arazoak: enpleguari, etxebizitzari, hezkuntzari eta osasunari lotutako sistemekiko koordinaziorik eta sare-lanik eza.
- Lehen mailako arretaren garapen orekatua lortzeko arazoak: funtzioen pilaketa, prebentzio eta detekzio goiztiarrera bideratutako zerbitzuen ahultasuna eta arreta tradizionalaren krisia (mendekotasuna eta abar).
- Informazio homogeen eta konparagarriarik eza.
- Ondoeza eta dilema profesionalak administrazio- eta kudeaketa-erantzukizunen eta esku-hartze sozialaren artean.
- Politiken, programen eta esku-hartzeen plangintzaren eta ebaluazioaren garapen urria.
- Desorekak finantzaketan, eta lurralde-desberdintasunak inbertsio-ahaleginari dagokionez.



MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZARI LOTUTAKO ESPERIENTZIEI BURUZKO SAIOA

Jardunaldiaren bigarren zatian, gizarte-politiken eremuko mugaz gaindiko lankidetzari lotutako esperientzietan oinarritutako bost hitzaldi eman ziren. Hitzaldi bakoitzean, parte hartu duten lankidetzaz-jardueren sustapenean, inplementazioan, garapenean, koordinazioan eta ebaluazioan izandako esperientzien berri eman zuten hizlariak.

MUGIGAIN proiektuaren esperientzia

Lehen hitzaldia MUGIGAIN proiektuari buruzkoa izan zen. Mugaz gaindiko lankidetzako esperientzia hori laguntza soziosanitarioaren eremuko profesionalen prestakuntzara bideratuta dago. IFAS Cambo (Kanbo, Frantzia) eta Plaiaundi (Irun) institutuek bertako ikasle eta irakasleen mugikortasuna errazteko irakaskuntza-lankidetzako esperientzia sortu zuten duela urte batzuk. Proiektu hori esperientzien elkartrukeari lotutako esperientziekin hasi zen, eta beste aukera batzuetarantz egin zuen aurrera. Zehazki, mugikortasunari lotutako lehen esperientzien ondoren, koordinazioan aurrera egiteko premia jabetu ziren, koordinazioak ikasle eta irakasleak aberasteko abantaila handiak zekartzalako eta, gainera, mugaren bi aldean arteko lan-mugikortasuna ikasle askorentzat aukera bikaina zelako. Horretarako, edukien koordinazioa, curriculum-praktikak bi lurraldeetan egiteko ikasleen elkartrukea eta edukien homologazioa landu zituzten. Oztopo nagusiak hizkuntza-arazoak (ikasleek bi hizkuntzak erabili behar baitzituzten) eta osasun-sistemen eta mendeko pertsonen arretarako sistemen antolamenduari lotutako desberdintasunak izan ziren. Hizlariak baloratu zuten, prestakuntza-titulua baliozkotzeko lana proiektuaren emaitzarik atsegingarrienetako bat izan zen, mugikortasunarekin eta lankidetzan oinarritutako lan partekatu eta koordinatuarekin batera.

LIMITIS FORUM proiektuaren baitan burututako gizarte ikerketa

Bigarren hitzaldia LIMITIS FORUM proiektuaren esparruan egindako gizarte- eta hezkuntza-lanari buruzkoa izan zen. Hizlaria Paueko eta Adurreko Herrialdeetako Unibertsitateko (UPPA) irakasle Stephanie Rabiller izan zen. Asociación Navarra Nuevo Futuro elkarteak koordinatutako proiektuaren berri emateaz gain, proiektuaren mugak eta ahalmenak aztertu zituen Rabillerrek. Proiektuaren xede den biztanleria aldi baterako harrera-prozesuetan dauden adingabeek eta



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

- I. **Mugaz gaindiko Mintegia**
- I. **Séminaire Transfrontalier**
- I. **Seminario Transfronterizo**

gazteek osatzen dute. Gazteei aukera berri bat eskaintzeko (beste pertsona eta lurralde batzuk ezagutzearen bidezko aberastasunean eta sare berrien sorkuntzan oinarritua), bi aldeetako zenbait erakundek elkartruckerako eta lankidetzarako jarduerak sustatzeko dinamika bati ekin zioten. Esperientzia horiek pedagogia intentsiboan oinarrituta zeuden. Jarduerak hainbat eratakoak ziren: adibidez, egonaldiak eta elkartrukeak. Horien bidez, gazteek aisia-jardueretan parte hartzen zuten astebetetz, hala nola Pirinioez gaindiko zeharkaldi solidarioan eta hondartzen garbiketean. Beste jarduera bat gazteen aktibaziora eta emantzipaziora bideratutako kulturarteko elkartrukeetan oinarrituta zegoen. Halaber, profesionalak prestatzeko jarduerak eta elkarbizitza eta indarkeriarik ezari lotutako trebetasun berriak eskuratzera bideratutako mintegiak eta eztabaidak garatu ziren. Proiektuak 1.300 parte-hartzaile eta 400 profesional eta boluntario izan ditu. Horrez gain, esperientzia eta ebaluazioa sistematizatzen bideratutako emaitzak argitaratzeko eta ikertzeko lan bat egin da.

Paueko eta Adurreko Herrialdeetako Unibertsitateko (UPPA) irakasle Stephanie Rabillerrek, proiektuaren nondik norakoak aipatzeaz gain, adierazi zuen zentroak lankidetzaren esperientziak dituela prestakuntzan (11 diploma eremu juridiko edo geografikoan), doktorego-prestakuntzan, ikerketan eta ikasleen elkartrukean. Unibertsitateak esperientzia horiekin bat egiteak sistematizaziorako eta ebaluaziorako beharrezkoa den zientziako, diziplina anitzeko eta zeharkako ikuspegia eskaintzen du. Era berean, proiektuko liderrak edo kudeatzaileak egindako lan garrantzitsua goraiatu zuen. Izan ere, lan arin eta orientatzaileari esker, inplikaturako agente eta bazkide guztien batasuna eta koherentzia lortu ziren.

Navarra Nuevo Futuro elkartearen esperientzia mugaz gaindiko proiektuetan

Hirugarren hizlaria Asociación Navarra Nuevo Futuro elkarteko Jon Echeberria izan zen. Erakunde horrek 25 urteko esperientzia du aztergai dugun esparruan. Urte horietan, hizlariak hainbat ekintza eta proiektu sustatu ditu, eta horietan parte hartu du. Azpimarratu beharra dago aurreko hizlariak azaldutako esperientziaren koordinatzailea izan dela. Asociación Navarra Nuevo Futuro elkarteko gizarte- eta hezkuntza-berrikuntzako laborategiko arduraduna da Jon. 90eko hamarkadan hasi zuen mugaz gaindiko esperientzia, eta, horretarako, atzean konprometitutako erakundeak dituzten pertsonen sareak sustatu zituen eta horietan parte hartu zuen. Elementu hori funtsezkoa da koordinaziorako. Erakundeek horretan sinetsi behar dute, eta profesionalen mugikortasuna eta profesionalen prestaketan, garapenean edo ebaluazioan parte hartzeko aukera bultzatu behar dute.

Adierazi zuenez, mugaz gaindiko esperientzia sare-lana da, eta 2.600 gaztek eta 1.200 helduk parte hartzea lortu dute (3.800 parte-hartzaile guztira). Horren guztiaren gakoa baliabide eta



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

I. **Mugaz gaindiko Mintegia**
I. **Séminaire Transfrontalier**
I. **Seminario Transfronterizo**

logika komunen sorkuntza da. Hizlariak, bere esperientziari dagokionez, adierazi zuen antolamendu-eraldaketako hainbat prozesu bizi izan dituela lurralde guztietan. Alde batetik, Nafarroan eta EAEn esku-hartzeak teknifikatzeko prozesua gauzatu da. Frantzian, berriz, eredu gero eta zentralizatuagoa da. Urte horietan, denbora politikoek eta antolamendu-denborek aukera asko ekarri dituzte. Baita profil-aldaketa bat ere gazteengan, neskak gero eta gehiago baitira. Halaber, araudien eta babes-aseguruen konplexutasunaren ondorioz jarduera horiei eustea gero eta zailagoa dela adierazi zuen.

Bere hitzetan, zailtasunak gorabehera, *egitea da garrantzitsua, zalantzak izanik ere*. Ez dago berritzerik espermentatu gabe. Garrantzitsua da beldurrak gainditzea, hizkuntza inoiz ez baita arazoa izan gazteentzat. Eskola-egutegia, ordea, arazoa izan da zenbaitetan. Dena den, ikusienez, onurak handiak dira. Izan ere, logika lokalista da, baina gazteek kultura global bera dute, eta oso ongi moldatzen dira elkarrekin berehala. Hizlariaren ustez, erronka handietako bat orain arte egindakoa katalogatzea eta sistematizatzea da.



Argazkia (ezkerretik eskuinera) = Maite Capdeville (IFAS Cambo), Stéphanie Rabiller (UPPA), Josune Sanz (Plaiiandi Institutua), Jon Echeberria (Navarra Nuevo Futuro Elkarte) eta Arrate Arín (Eusko Ikaskuntza)



Agintzari kooperatibaren esperientzia mugaz gaindiko proiektuetan

Laugarrenik, Agintzari kooperatibako Eduardo Díazek azken 3 urteetan hainbat proiektutan izandako esperientzia azaldu zuen. Proiektu horien artean, gazteekiko esku-hartzera bideratutako eta Poctefak edo Euroeskualdeak finantzatutako Sarea, Ekin, Bertan, Gaztejeunes, Transmenas eta Jeunes Migrats izenekoak azpimarra daitezke. Proiektu horiek guztiak, garatzeko denbora eta ahalmena kontuan hartuta, Fast-Track eredupean sortutako proiektuak edo pilotaje-esperientziak dira.

Esperientzia horietan oinarrituta, aurrera egin dute ikuspegi berrietan eta jakintzaren zabalkundeetan eta sistematizazioan, gogobetetzea eta jakintzaren elkartrukea areagotu dute, eta, gainera, ezohiko diru-sarrerak lortu dituzte Europako proiektuen finantzaketaren bidez. Esperientzia horiei esker, beste baliabide eta figura batzuk ezagutu dituzte, hala nola harrera profesionalizatua eta harrera sekuentziala. Zailtasunak, zenbaitetan, bazkide izan daitezkeen erakundeak eta antzeko jarduerak egiten dituzten erakundeak zein diren ez jakitearen ondorioz sortzen dira. Hizkuntzaren arazoari, kudeaketaren konplexutasunari eta zenbait deialditan funtsak ez aurreratzeari aurre egin behar izateaz gain, ezinbestekoa da sarearen eta mugaren bi aldeetan antzeko eremuetan lan egiten duten erakundeen ezagutzan sakontzea.

Etcharry Formation Développement-en esperientzia mugaz gaindiko proiektuetan

Esperientzien mahaia Etcharry Formation Développement zentroaren testigantzarekin amaitu zen, Maia Berasategiren bitartez. Hizlari hori haurrak eta adinekoak babestera bideratutako Sarea izeneko esperientziako buruetako bat da. Lanerako eta esku hartzeko ereduak lurraldeen arteko esperientzien elkartrukeetan oinarrituta dago (elkarrengandik ikasteko), eta esku-hartzea zein ikasleen eta profesionalen prestakuntza biltzen ditu, profesionalek ezarritako ildoekin, feedback batekin eta profesionali eta ikasleei eskainitako prestakuntzarekin. Elkarri esperientzien berri emateak etengabeko ikaskuntza dakar, eta oso balorazio positiboa egin da horren inguruan.

Esperientzia horren emaitzak 2020ko azken konferentzian aurkeztuko dira, baina titulazioen homologazioan, lanbide-heziketako 11 ikastetxeren koordinazioan, eremu soziosanitarioko eta mendekotasunaren eremuko ikasleen elkartrukean eta adinekoei zuzendutako praktiken inguruko lankidetzan eta elkartrukean egindako aurrerapenak azpimarratu dira. Nabarmentzekoa da, gainera, homologazio hori titulu soziosanitarioetan lortu dela, baina ez dela gauza bera gertatu beste batzuetan (soziokulturean eta abar).



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

I. Mugaz gaindiko Mintegia
I. Séminaire Transfrontalier
I. Seminario Transfronterizo

Erronkarik azpimarragarrienen artean, ebaluazioan eta malgutasun handiagoan aurrera egin beharra aipa daiteke. Mugak eta aukerak irekitzea oso aberasgarria da. Izan ere, metodo tradizionalerik buruz hausnartzeko aukera ematen du eta jakintzan aurrera egiten laguntzen du. Hala ere, oso garrantzitsua da kudeatzeko eta izapidetzeko prozedura sinpleago bat lortzea.



Argazkia = Eduardo Díaz (Agintzari kooperatiba)



Argazkia = Maia Berasategi (Etcharry Formation Development)

Esperientzien saioaren sintesia

Horrela, beraz, esperientzieri buruzko hitzaldietan, gizarte-zerbitzuen eta esku-hartze sozialaren esparruko mugaz gaindiko jardura sustatzeko oso elementu garrantzitsuak aurkeztu ziren. Honako hauek azpimarra daitezke:

- Hizkuntza ez da zailtasunik handiena, baina oztopo teknikoa da. Ez da oztopoa parte-hartzaileen kasuan (gazteak dira), baina bai proiektua kudeatzeko zereginetan.
- Eskuragarri dagoen finantzaketaren zatirik handienak berrikuntza eta berritasuna eskatzen ditu proiektu bakoitzean. Hori oso interesgarria da, baina esperientziak denbora behar dute finkatzeko, eta berrikuntzak, sistematizaziorik eta ebaluazio egokirik gabe, askotan elkarrekin bat ez datozen esperientzien eta ikuspegiaren etengabeko inplementazioa dakar.
- Proiektuen kudeaketa administratiboa oso konplexua da, eta denbora asko eta ezagutza handia behar ditu. Zenbaitetan, formari funtsari baino denbora gehiago eskaintzen zaio justifikazioetarako.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

I. Mugaz gaindiko Mintegia
I. Séminaire Transfrontalier
I. Seminario Transfronterizo

- Administrazio-kulturak eta egoera politikoak oztopoak dira lurralde batzuen artean lankidetzan aritzeko. Oso garrantzitsua da hori gainditzea, atzerapauso handiak eragin baititzake.
- Proiektuen finantzaketak 3 urteko iraupena du, eta, amaitu ondoren, ezin da jarraitu egindako lanarekin. Horrek murriztu egiten du mugaz gaindiko kultura finkatzeko ahalmena.
- Erakunderik txikienek ez dute ahalmen ekonomikorik proiektuetan parte hartzeko beharrezkoa den dirua aurreratzeko. Diru-laguntzak berandu iritsi ohi dira, eta hori oztopo handia da.

Oztopo horiek gainditzeko, parte-hartzaileek azpimarratu zuten oso garrantzitsua dela administrazioek esparru horretan duten konpromisoa ezagutzea eta, horren bidez, proiektuak babesteko, berreskuratzeko eta bultzatzeko egiturez hornitzea.



SAIO PARTEHARTZAILEA

Parte-hartzaileak 3-4 laguneko taldeetan banatu ziren, eta 3 galderari erantzun zieten elkarrekin:

1. Zein dira mugaz gaindiko lankidetzarako oztopo eta zailtasun nagusiak gizarte-ongizatearen alorrean?

Oztoporik eta zailtasunik aipatuenak honako hauek izan dira:

- 1.- Erakunde- eta eskumen-esparru desberdinak.

Lurralde bakoitzeko eskumen-egiturak ez dira oso ongi ezagutzen. Erronka komunak izan arren, administrazio-egitura, arreta-sistema, eskumen-maila eta legeria desberdinek eta egitura horien guztien inguruko ezjakintasunak erruz zailtzen dute lankidetzak. Gainera, mugaz gaindiko jarduerarekiko interes politikoa desberdina izan daiteke legegintzaldiaren eta unean uneko borondate politikoen arabera.

- 2.- Hizkuntza

Eragileek hizkuntza-gaitasunik ez izateak (euskaraz, frantsesez edo gaztelaniaz) harremanak zailtzen ditu maila tekniko eta profesionaletan.

- 3.- Finantzaketa eta baliabideak lortzeko zailtasunak

Proiektu pilotu txikiak abian jartzeko eta proiektuen administrazio-kudeaketa bera (arindu beharrekoa) gauzatzeko zailtasunak.

- 4.- Kultura-tradizio desberdinak

Iparraldeak tradizio errepublikanoagoa du, eta ibilbide luzeagoa du egina gizarte-eskubideen arloan. Hegoaldean, berriz, tradizio asistentzialistagoa dago, ongintza-izaera handiagokoa.

- 5.- Mugaz gaindiko proiektuen agerikotasunik eza eta proiektuen ikaskuntzak helarazteko eta sozializatzeko zailtasunak.

6.- Lurraldeen arteko harremanen interesa norabide bakarrekoa da, ez dago interes partekaturik. Interes propioaren alde parte hartzen da, hau da, "xx-en zer egiten den jakin nahi dut nik ikasteko, neure lurralderako".

7.- Konfiantzarik eza. Agenteek elkar ez ezagutzea.

8.- Agendak gainezka. Gure erakundeen betebeharrak zehatzek denbora guztia kentzen digute.

9.- Sektorizazioa. Beraz, ikuspegi globalagoa falta da.

10.- Mugikortasuna; hala ere, bideokonferentziak erabiliz konpon daiteke.



Saio partehartzailea

2. Zein abantaila eta aukera lortuko lirateke gizarte-politiken arloan mugaz gaindiko plataforma sortuz gero?

1.- (Elkar) ezagutzea: ingurune hurbiletan zer egiten den ezagutzeko aukera. Ingurune hurbiletan garatzen diren politikak, metodologiak, esku hartzeko sistemak eta bestelakoak aztertu eta konparatzeko eta haien ahulezia eta indarguneen bidez ikasteko aukera.

2.- Jardunbide egokietatik ikasteko eta jardunbideak neurtzeko aukera (eraginkortasuna, jasangarritasuna, ebaluazioa). Elkarren artean konparatzea eta elkarrekin ikastea: nola egiten duten, nola antolatzen diren, funtzionatzen duten ala ez. Hain gizarte desberdina hain hurbil izatea aukera ona da.

3.- Elkartrukeak eta harremanak bultzatzea: agendak partekatzea, agenteen bilaketa bultzatzea eta lanean ari diren agenteengana bizkor jotzeko aukera eskaintzea. Elkar ezagutzeak tirabirak murrizten eta enpatiak eta aukera berriak sortzen ditu.



- 4.- Baterako politikak abian jartzeko aukera: elkarrekin emandako zerbitzuak (hala nola Pirinioetako eremuan). Zerbitzu partekatuen aukerak aztertzea.
- 5.- Erreferentzia bakarraren bidez lurralde guztien agerikotasuna hobetzea.
- 6.- Mugaz gaindiko eremuan hirugarren sektorearekiko erakunde-elkarrizketarako guneak sortzea.
- 7.- Datuen bilketa hobetzea eta konparazioa egiteko datu eta adierazleen bilketan sakontzea.

3. Zein lan-ildo jorratu beharko lituzke mugaz gaindiko plataforma batek gizarte-ongizatearen arloan aurrera egiteko? Zer aholku emango zenituzke lan-ildo horiei ekiteko?

- 1.- Adierazle komunak izango dituen gizarte-politiken behatoki bat sortzea 3 lurraldeentzat.
- 2.- Mugaz gaindiko baliabideak, ekimenak, finantzaketa-iturriak eta abar biltzea eta ezagutzera ematea.
- 3.- Dinamizazioaren, egituraketaren eta koordinazioaren rola betetzea. Mugaz gaindiko topaketak bultzatzea.
- 4.- Mugaz gaindiko dinamizazioaren funtzioa profesionalizatzea. Eragileak babesteko sarea sortzea eta aholkularitza, prestakuntza eta informazioa eskaintzea.
- 5.- Sektore eta jarduera guztien ikuspegi integralagoa eta globalagoa eskaintzea. Proiektuak egituratzeko aukera.
- 6.- Tituluen homologazioa bultzatzea.
- 7.- Zahartzeari eta mendekotasunari lotutako alderdiak lantzea.



POLITIKA PUBLIKOEN GAINEKO SAIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatu Maite Peñaren hitzaldia

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020rako aurrekontuak onartu berri ditu, eta aste honetan bertan aurkeztu dute datozen hiru urteetarako Plan Estrategikoa. Gipuzkoak Europako gizarte-desberdintasun txikieneko lurraldea izan nahi du, eta lau funts handi finkatu dira Plan Estrategikoan: etorkizuna, kohesioa, lehiakortasuna eta lankidetzeta.

Erronka berriak dakarzkiguten eraldaketa handiak bizi ditugu gaur egun, eta Gipuzkoak, lurralde txikia baina gizarte-kohesio handikoa izaki, erantzun egin behar die erronka horiei.

Desberdintasunak murrizteko, kohesioa areagotzeko eta lehiakortasun handiagoa eta kalitateko enplegu gehiago lortzeko erronkei aurre egin behar diegu. Gipuzkoan, gizarte-politikak oso garrantzitsuak dira. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren ia % 50 bideratzen da politika horietara.

Eusko Jaurlaritzari gizarte-estrategien plangintza dagokio, Foru Aldundiari gizarte-zerbitzuen egikaritzea, eta udalek, berriz, esku-hartze komunitarioa eta prebentziozko gizarte-zerbitzuak kudeatzen dituzte. Gainera, hirugarren sektorea oso zorrotza eta aktiboa da.

Datu erlatiboa ona bada ere, Gipuzkoako herritarren % 16,9 pobrezia-arriskuan dago. Eta kolektibo horri arreta berezia eskaini behar diogu.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren datozen urteetarako lehentasun orokorrak honako hauek dira:

- Etorkizuna eraikitzeke ahalegin kolektiboa
- Gure lehiakortasuna kalitateko enpleguaren bidez indartu nahi dugu
- Gizarte-kohesioa eta gizarte-desberdintasunen murrizketa sendotu behar dugu
- Gobernantza kolektiboa

Eta legegintzaldi honetarako erronkak honako hauek dira:

- Gure biztanleriaren zahartzeari aurre egitea
- Gure lurraldearen gizarte-kohesioa ziurtatzea



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

I. **Mugaz gaindiko Mintegia**
I. **Séminaire Transfrontalier**
I. **Seminario Transfronterizo**

- Gizarte-babesaren gero eta premia handiagoari erantzutea
- Gizarte-bazterketari aurre egitea
- Norberaren autonomia bultzatzea
- Elkartasunaren arloan aurrera egitea

Eta, hori guztia, aurrekontuei lotutako plan estrategiko baten bidez.

Gure Departamentuaren lehentasun nagusiak (guztiak aipatzeko asmorik gabe) honako hauek dira:

- Egoitza-arretako eredu berria
- Haurren babesgabetasunari aurre egiteko plan berria
- Indarkeria matxistaren biktimenzako arreta-eredu integrala
- Bizilekuko arreta integrala sustatzeko plana
- Gizarte-zerbitzuen mapa zabaltzea

Gainera, gero eta gizarte-eskari handiagoaren eta aurrekontu mugatuaren egungo testuinguru honetan kontuan hartu beharreko **funtsezko alderdiak** honako hauek dira:

- Gizarte-berrikuntzaren aldeko apustu irmoa
- Tolerantziaren aldeko apustua
- Kudeaketa jasangarriaren aldeko apustua

Eta, hori guztia, hirugarren sektorearekin eta erakundeekin estu lan eginez, beti erraza ez bada ere. Horretarako, funtsezkoa da beste sektore batzuekin koordinatzea, hala nola hezkuntzaren, osasunaren eta etxebizitzaren sektoreekin. Eta bi programa estrategiko ditugu: **Elkar-Ekin eta Adinberri**.

Gure Plan Estrategikoak bost helburu ditu:

- Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta hobetzea
- Gizarte-kalteberatasuneko egoeran dauden pertsonen enplegua lortzeko aukerak sortzea

- Kohesio eta aktibazio inklusiboko proiektuak sustatzea eta bultzatzea. Administrazioa parte-hartzaileengana hurbiltzea (Think Tank)

- Beste sistema eta sektore batzuekin koordinatzea (hala nola osasunaren, hezkuntzaren eta etxebizitzaren sektoreekin)

- Eta, hori guztia, herritarrak eremu horietan sentsibilizatzeko eta herritarrekin komunikatzeko lan-plan egoki batekin.

Amaitzeko. Zahartzeak baldintzatu egingo gaitu etorkizunean, eta berri egin behar dugu eskatuko dizkiguten zerbitzuak hobeto emateko. Gipuzkoan, badakigu hori egiten, hirugarren sektorearekin eta enpresekin batera. Lankidetzak, partaidetzak eta berrikuntza sozialaren bidez, premiei aurrea hartu ahal izango diegu, eta lankidetzak-ikuspegi batetik aurre egin ahal izango diegu.

Gipuzkoa lurralde berritzailea da, eta jakingo dugu behar bezala jokatzen.



Argazkia (Ezkerretik eskuinera) = Angel Toña (Eusko Ikaskuntza), Maite Peña (Gipuzkoako Foru Aldundia), Beñat Cachena (Euskal Hirigune Elkargoa) eta Iñaki Dorronsoro (Eusko Ikaskuntza)



Euskal Hirigune Elkargoko Gizarte Ekintzako lehendakariorde Beñat Cachenauten hitzaldia

Hasteko, pozten nau horrelako egun bat antolatu izanak. Alde batetik, gizarte-politikak funtsezkoak direlako lurralde-proiektu arrakastatsuak garatzeko. Bestetik, seguruenik denok irabazten dugulako ondokoak zer egiten duen jakitean. Izan ere, Nafarroako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Iparraldeko erakunde-esparrua eta esparru politikoa erabat desberdinak diren arren, elkarren inspirazio-iturri izan gaitezke.

1. Interes komunitarioko gizarte-ekintzaren eskumena.

Labur-labur deskribatuko dut nola txertatu duen Euskal Hirigune Elkargoak gizarte-ekintza bere politiketan.

Elkargo gaztea da, 2017ko urtarrilaren 1ean sortua, lehendik bazeuden beste 10 mankomunitatek bat egin ondoren, eta 158 udalerriz osatuta dago. Frantziako legeak nahitaezko eskumen batzuk eta aukerako edo hautazko beste batzuk ezartzen ditu horrelako kolektibitateentzat.

Nahitaezko eskumenen artean, garapen ekonomikoa, etxebizitza eta hondakinen kudeaketa azpimarra daitezke.

Gizarte-ekintza aukerako eskumena da. Hasiera-hasieratik, eztabaida sortu zen elkargoaren barruan: Komeni zen ala ez "interes komunitarioko gizarte-ekintza" aukerako eskumena bere gain hartzea? Batzuen ustez, Departamendu Kontseiluak ongi betetzen zuen eremu hori, eta beharbada ez zen beharrezkoa maila horretan esku hartzea. Hala ere, aurreko mankomunitateek (Euskal Hirigune Elkargoa eratzeko bat egin zuten 10ek) eskumenak zituzten gizarte-ekintzaren hainbat eremutan: haurtzaroen, haurtzaindegien eta aisia-zentroen kudeaketan... Halaber, eskumenak zituzten prekaritatearen eremuan. Adibidez, hainbat azpiegitura kudeatzen zituzten (hala nola hotel soziala eta elikagaien bankua) eta prekaritatearen aurka ziharduten elkarteei babes ekonomikoa ematen zieten (eguneko zentroak, supermerkatu soziala eta abar). Bestalde, zahartzearen arloan, Ipar Euskal Herriko hainbat mankomunitatek beren Gizarte Ekintzako Zentro Mankomunatu propioa zuten hainbat zerbitzu garatzeko (etxeko laguntza, janaria eramatea, supermerkatu soziala eta abar).

Azkenik, eztabaidaren barruan, gizarte-ekintzaren eskumena bere gain hartzeko premia sortu zen. Erabakiak 2 etapa izan zituen oinarri: lehenik eta behin, 2017. urtearen amaieran, "interes komunitarioko gizarte-ekintzaren" eskumena hartu zuen bere gain, eta ondoren, 2018ko



azaroaren 3an, eskumen horren edukia zehaztu zuen. Erabakia, nolana ere, aho batez hartu zuen Elkargo Kontseiluak. Ondoren, eztabaidaren funtsezko puntuak eskainiko ditugu.

Gizarte-kohesioko proiektua lan kolektibo baten emaitza da: urtebetetik gorako aldi batean inplikatu zituen Euskal Hirigune Elkargoko kideak (Kontseilu Betearazlea eta "Herritarrentzako zerbitzuak" batzorde tematikoa), udalerrak, gizarte-ekintzako udal-zentroak (CCAS), bazkide instituzionalak (Estatua eta Departamendu Kontseilua barne) eta elkarte-sare aberats bat (prekaritatearen eremuan bereziki).

Gizarte-kohesioko proiektuak subsidiarotasun-erregistroan kokatzen du Euskal Hirigune Elkargoa: ekipamenduak eta zerbitzuak mankomunitate batek zuzendu zituen lekuan esku hartzen du Elkargoak. Gainerako kasuetan, udalerriek esku hartzen jarraitzen dute. Beraz, interes komunitario egokitu da, 2 zutabetan oinarritua: garai bateko EPCLen ardurapeko zerbitzuen kudeaketa eta Euskal Herri osorako gizarte-garapena.

Gizarte-kohesioko proiektuak Departamendu Kontseiluaren zeregina osatzea ahalbidetzen du: kontua ez da esku-hartze bikoitza gauzatzea, osagarritasun handia sustatzea baizik. Euskal Hirigune Elkargoak ez du zerbitzu indibidualik eskaintzen, eta Departamendu Kontseiluak gizarte-ekintzako buru gisa betetzen duen zereginarekin jarraitzen du, bereziki esku-hartzearen ohiko eremuetan (PMI, Haurrentzako Gizarte Laguntza, RSA, APA, PCH...).

Gizarte-kohesioko proiektuak koherentzia ematen dio Euskal Hirigune Elkargoaren lurralde-proiektuari: gizarte-alderdia Euskal Hirigune Elkargoaren beste eskumen batzuen zeharkakotzat hartzen da (hala nola etxebizitzaren, mugikortasunaren, garapen ekonomikoaren, elikaduraren eta abarren eskumenen zeharkakotzat). Gainera, sozializatzen lagunduko du, baita Euskal Hirigune Elkargoak babestutako beste politika sektorial batzuen bitartez ere, Euskal Herriko Gizarte Premien Azterketak agerian utzi dituen erronkei hobeto erantzuteko.

Gizarte-kohesioko proiektuak agente berri bat sorrarazi du: Euskal Herriko CIAS izeneko. CIASek (Gizarte Ekintzako Zentro Mankomunatuak) zerbitzuak kudeatuko ditu Ipar Euskal Herrian. Lurraldearen gainerakoan, berriz, gizarte-garapenerako politika babestuko du autonomiaren eta prekaritatearen eremuei lotutako proiektu eta ekimenen bidez. Euskal Hirigune Elkargoaren babesa jasoko du, eta baterako eta partekatutako ekintzak bultzatuko ditu hiri-eremuko CCASekin eta elkarteekin.

2. Interes komunitarioko gizarte-ekintzaren eskumenaren edukia.

Labur-labur, gure gizarte-kohesioko proiektua nola egituratuta dagoen azalduko dugu ondoren. Proiektuak gizarte-premien azterketaren bidez identifikatutako hainbat erronka ditu abiapuntu. Horien artean, sei azpimarratuko ditugu:



- Euskal Herrian ezartzen diren populazio berriak hartzeko gai izatea.
- Familia txikiagoen gero eta kopuru handiagoari aurre egiteko etxebizitza nahikoa egitea.
- Gero eta proportzio handiagoa duten guraso bakarreko familien kalteberatasun-egoera kontuan hartzea.
- Prekaritateak neurri handian mende hartu dituen gazteei lanbide-orientazioan eta lanbide-ibilbidean laguntzea.
- Zahartzearen areagotzeari eta zaintzaileen kopuruaren murrizketari aurrea hartzea pertsonari eskaini beharreko zerbitzuak sendotuz.
- Populazioak eta lurraldeak era desberdinean eraginpean hartzen dituen prekaritate handiari aurre egitea.

Erronka horiek kontuan hartuta, gizarte-koehsioko proiektua bi helbururen inguruan egituratuta dago:

- Gizarte-garapena Euskal Herri osoan.
- Antzinako agintari mankomunalen kargura zeuden azpiegituren eta zerbitzuen kudeaketa. Horrek aukera ematen die udalerriei (itsasertzeko udalerrri handiei bereziki) tokiko gizarte-ekintzarekin jarraitzeko, haurtzaroaren arloan edo gizarte-ekintzako udal-zentroen (CCAS) bidez.

Esku hartzeko lau arlo hartzen ditu:

Lehen haurtzaroa / haurtzaroa / gaztaroa. Lehen haurtzaroaren kasuan: haurtzaindegiak (azpiegituren zuzeneko kudeaketa, elkarleen babes ekonomikoa). Haurtzaroaren kasuan: aisiazentroak. Gaztaroaren kasuan, gazteen elkarteak babestu eta gazte-politika garatu behar da.

Osasuna. Alde batetik, diziplina anitzeko osasun-zentroak sortu behar dira medikuntza-eskaintza urriko eremuetan, mediku gazteen etorrera bultzatzeko. Bestetik, tokiko osasun-hitzarmena egin behar da administrazioarekin (Eskualdeko Osasun Agentziarekin), osasun-baldintzatzaileetan oinarrituta prebentzioa lantzeko.

Prekaritatea. Azpiegiturak kudeatzea edo abiaraztea (hotel soziala, aterpea, elikagaien bankua eta abar) eta prekaritatearen eremuan diharduten elkarte ugariak babestea.

Autonomia. Esperimentazioa babestea, adineko pertsonen eta desgaitasunen bat dutenei beren bizilekuan jarraitzeko aukera emateko. Ipar Euskal Herriko zerbitzuak kudeatzea (etxeko laguntza, janaria eramatea, supermerkatu soziala eta abar).



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

I. **Mugaz gaindiko Mintegia**
I. **Séminaire Transfrontalier**
I. **Seminario Transfronterizo**

“Prekaritate” eta “Autonomia” dimentsioak Gizarte Ekintzako Zentro Mankomunatu batek hartzen ditu bere gain (CIAS Pays Basque izenekoak).

Eskumen horren barruan, ez dira ahaztu genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak. Izan ere, etxebizitza baten alokairua finantzatzen dugu, eta Baionako elkarte bat arduratzen da etxebizitza hori kudeatzeaz. Gainera, gai horren inguruko prebentzioan diharduten elkarteak babesten ditugu.

Amaitzeko, migratzaileei dagokienez, Baionan harrera iragankorreko zentro bat ireki zen duela urtebete, gure presidentearen ekimenez. Ekimena aho batez onartu du Euskal Hirigune Elkargoak, eta haren finantzaketa hartu du bere gain. Gure zailtasunaren oinarria da bakarrik gaudela baliabide handi hori finantzatzeko (milioi 1 euro urtean), Estatuaren ustez ekimen horrek dei-efektua eragin baitu. Gure ustez, ordea, beharrezko baliabidea da. Dagoeneko 10.000 pertsona hartu ditugu urtebetean. Gehienak Saharaz hegoaldeko Afrikakoak ziren, eta ibilbide luzea egin eta Espainia osoa zeharkatu ondoren, muga igaro eta bidaiatzen jarraitzen dute, Frantziako hiri nagusietarantz. Gaur egun, ez dago politika partekaturik, eta gurea bezalako taldeak dira zerbitzu humanitario horren kostu handiari (baina beharrezkoari) aurre egiten dioten bakarrak.



INKESTA KUANTITATIBOAREN EMAITZA

1. Ongizate ereduaren inguruko analisia eta hausnarketa, interesgarria eta beharrezkoa dela uste duzu?

Eraitza = 5tik 4,8

2. Garrantzitsua al da Gizarte Ongizatearen inguruan mugaz gaindiko plataforma edo sare egonkor bat egotea?

Eraitza = 5tik 4,8

3. Mugaz gaindiko plataforma batek, zein arlo landu beharko lituzke. Ordenatu itzazu, lehenetasunaren arabera, 1tik 11raino, 1 zenbakia garrantzitsuenari ezarri eta 11 garrantzi gutxien duenari.

Eraitza =

ARLOA	GUZTIRA
Haurtzaro, gazteria eta familia politikak	3,57
Pobrezia eta gizarte inklusioa	4,79
Migrazioak	5,25
Dependentzia eta zaintzak	5,39
Enplegua eta laneko inklusioa	5,79
Zahartze aktiboa	6,29
Garapen komunitarioa	6,57
Diru sarrerak bermatzeko errenta	6,89
Desgaitasuna	7,11
Etxebizitza	7,18
Jasangarriatsun Ekonomikoa	7,18

Partaideen aipatutako beste arlo batzuk:

- Ezagutzaren transferentzia
- Lanbide-praktikak
- Prebentzioa
- Jasangarritasuna
- Klima-aldaketa
- Landa-garapena
- Diagnostiko komunetan lan egitea eta ibilbide-orri komunak garatzea. Adierazle-sistema komun bat adostea eta neurketa sistematikoak egitea.
- Aisiarako eta astialdirako hezkuntza
- Duintasuna: bizitza osoan ez ezik, bizitzaren amaieran ere bai. Administrazioak heriotza duinerako eskubidea lantzeko eta bultzatzeko moduari buruzko eztabaida.

Eusko Ikaskuntzaren lantaldearen izenean, Mila esker danoi zuen partehartzeagaitik!



Mintegiko partehartzaileak

2020ko urtarrila